



OPOSAKETAK, ZEREN ZAIN DAGO GOBERNUA?

Gero eta gutxiago falta da irailaren 1erako eta bi aukera daude: sare publikoko ikastetxeak aurreko ikasturteko plantila berdinekin ikasturtea hasi ala 320 funtzionario gehiagorekin. Milaka pertsona daude oposizioekin zer gertatuko ote den zain, eta hau da oposizioen helburua: ikastetxeetako plantilak egonkortu eta interinoak prekariatetik atera.

Gobernuak izugarritzko lana du aurrean. 2010. urtetik, UPN gobernuan zelarik, Hezkuntzako langileok ezinezkoa zirudien egoera bizi izan dugu: 800 lanpostu suntsitu arren, irakasleen behin-behinekotasuna %7 handitu da, hau guztia 2015 urtean sare publikoan 4.000 ikasle gehiago matrikulatzen zirelarik. Mendozak ez du urrun jo beharko halako balentria nola gauzatu azalduko dionik aurkitzeko. UPNren gobernuan ustezko kargu teknikoak betetzen zituzten pertsonak izan ziren honako neurriak ezarri zituztenak: eskola ordu igoera (17tik 20ra bigarren hezkuntzan, eta 23tik 25era lehen hezkuntzan); ratioen igoera; zuhurkeria ordezkapenetan (umeak irakaslerik gabe 15 egunez); udako hilabeteak zein opor egunak ez ordaintzea ordezeko pilori; edota PAIren hedapena, ehunka irakasle erdaldun soberakin bihurtu dituen. Hezkuntza Departamentuko “teknikari” hauek guztiek haien karguetan jarraitzen dute, batzuk gainera zerbitzu zuzendari izatetik zuzendari orokorra izateko saria jaso dutelarik. Baina gaur ez da eguna aldakorkeriaz, zerbitzu publikorako bokazioaz edo hobe ordaindutako kargu baterako atxikipenaz hitz egiteko.

Joan den urtarrilaren 20an, gobernu kontseiluaren ondorengo prentsaurrekoan Ana Ollo kontseilari bozeramailea azaldu zen. “Denbora gainean dugu” zioen. Idazki hau sinatzen dugunok eta ordezkaten ditugun sindikatuok bere hitzak %100 gureak egiten ditugu; baita dirua eta denbora inbertitu duten ehunka pertsonak ere. Garaia da Gobernuak oposizio deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean behingoz argitaratzeko.

“Azken momentura arte negoziatuko dugu akordioa lortzeko”. LAB, STEILAS eta ELAn jakin nahi dugu noiz arte eta norekin negoziatu nahi duen gobernu honek. Ollo eta Mendoza kontseilariak arras ongi dakite akordioa badutela dagoeneko. Lehengoz 9 urtetan, Hezkuntzako Mahai Sektorialaren gehiengoak akordio bat eskaini dio Gobernuari. Langileen ordezkarien gehiengoak eskua zabaltzen dio Mendozari bere EPEa argitara dezan, 320 pertsona prekariatetik ateratzeko, eta hori plaza kopuruarekin ados ez gauden arren, gutxi iruditzen zaizkigulako.

Eta ez oposaketetarako soilik, ordezkoen zerrenden kudeaketarako ere eskaini diogu akordioa Gobernuari.

Bere esku dago, baina bi dira aldaketaren Gobernuak dituen aukerak: negoziazio kolektiboko aldebatokotasunarekin buka dezake, akordioak eginez (EPEa eta zerrenden kudeaketari dagokionez badauka akordioa – 3 sindikatuok proposatzen dugun zerrenda bakarra oraingoa baino justuagoa da) edo beste aukera, UPNren aginte hutsezko politikari eutsi, bere karguekin egin duen bezala.

Hiru sindikatuok ez dugu inolaz ere onartuko txantaila politikotik sortutako EPErik.

LAB, STEILAS eta ELAk uste dugu nafar gizarteak ez zituela hautatu erregimenaren politikak eta jokabideak mantentzeko. Gure babesa izango du aldaketarako apustua benetakoa bada.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 22a



OPOSICIONES, ¿A QUÉ ESPERA EL GOBIERNO?

Cada vez falta menos para el primero de septiembre y los centros educativos de la red pública empezarán el curso con las mismas plantillas que el curso pasado o con 320 funcionarios y funcionarias más. Hay miles de personas pendientes de las oposiciones, que precisamente para eso sirven: para estabilizar las plantillas de los centros docentes y para sacar al personal interino de la precariedad.

Tiene el Gobierno una ingente tarea por delante. Desde el año 2010, con UPN en el ejecutivo, los y las profesionales de la educación hemos sido protagonistas de algo que parecía imposible y es que habiendo destruido 800 puestos de trabajo, ha aumentado la temporalidad entre el profesorado en al menos 7 puntos porcentuales y todo a la vez que la red pública escolarizaba en 2015 a 4.000 alumnos y alumnas más. Mendoza no tendrá que buscar muy lejos para encontrar a quien le explique cómo hacer posible semejante "hazaña". Personas que ocupaban cargos supuestamente técnicos en gobiernos de UPN fueron quienes ejecutaron el aumento de la carga lectiva (de 17 a 20 en secundaria y de 23 a 25 en primaria); de las ratios; del racaneo en las sustituciones (niños y niñas sin profe durante 15 días); de la sustracción de los meses de verano y finiquitos del personal interino; o de la extensión del PAI, que ha convertido en excedentarios a centenares de docentes castellanoparlantes. Casi todas estas personas siguen en sus cargos y alguno incluso se ha visto promocionado de director de servicio a director general. Pero hoy no es el día de hablar de camaleonismos; de vocación de servicio público o de apego por un cargo mejor retribuido.

El pasado miércoles 20 de enero, comparecía la consejera portavoz doña Ana Olo en la rueda de prensa posterior a la sesión de gobierno. "El tiempo apremia" venía a decir. Quienes firmamos este escrito y los sindicatos a los que representamos suscribimos al 100 % sus palabras; los centenares de personas que llevan meses invertidos, y en algunos casos muchísimos euros, en prepararse seguro que también. Ya va siendo hora de que el Gobierno publique la convocatoria de oposiciones en el Boletín Oficial de Navarra.

"Negociaremos hasta el último momento para alcanzar un acuerdo". En LAB, STEILAS y ELA nos preguntamos hasta cuándo puede negociarse y con quién quiere este gobierno alcanzar un acuerdo. Saben la consejera Olo y también el consejero Mendoza, que ya disponen de un acuerdo. Por primera vez en nueve años, la mayoría sindical de la Mesa Sectorial de Educación le ha ofrecido un acuerdo al Gobierno. La mayoría de la representación de los trabajadores y trabajadoras tiende la mano a Mendoza para que pueda publicar su OPE y 320 personas salgan de la precariedad y lo hacemos pese a no estar de acuerdo con la cifra, que consideramos escasa.

Y no sólo para las oposiciones, también hemos ofrecido al Gobierno un acuerdo en lo que a la gestión de listas de interinidad se refiere.

Está en su mano, pero dos son las opciones que tiene el Gobierno del cambio: puede acabar con la unilateralidad en la negociación colectiva y sumar acuerdos (lo tiene en cuanto a la OPE y en cuanto a las normas de gestión de listas -la lista única que proponemos los tres sindicatos es más justa que la actual) o heredar, al igual que ha hecho con sus cargos, la política de ordeno y mando de UPN.

Los tres sindicatos no vamos a aprobar ninguna OPE que surja del chantaje político.

LAB, STEILAS y ELA creemos que la ciudadanía navarra no los eligió para perpetuar las políticas y los tics del régimen. Podrá contar con nuestro apoyo si su apuesta por el cambio es sincera.

En Iruña, a 22 de enero de 2016

Ainhoa Díaz Pinar-LAB Irakaskuntza
Amaia Zubietta Garciandía-STEILAS
Ander Pascual Ariz-ELA Educación